

## Egoitz Arruti Varsoviako "International Conference on ITS Telecommunications" kongresuan

2017/06/07

Egoitz Arruti, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Seinale Tratamendua eta Komunikazioa taldeko ikerlariak, trenetako haririk gabeko komunikazio sistemen inguruko hitzaldi batean parte hartu zuen, Varsovia (Polonia)-n, maiatzaren 29tik maiatzaren 31ra bitartean antolatu zen "International Conference on ITS Telecommunications" kongresuan.

Ibilgailu barneko haririk gabeko komunikazio sistemak azken urteetan interes handia sortzen ari dira, gaur egungo kable sistemekin konparatuz gero, dakarten abantailarengatik, hala nola, pisua murriztea eta malgutasun handiagoa.

Egoitz Arrutiren "Unequal error protection with LDM in inside carriage wireless communications" izeneko ponentziak, LDM (Layered Division Multiplexing) sistema bat proposatzen du, UEP (Unequal Error Protection) akatsen aurkako babes sistemarekin osatutakoa, ibilgailu barneko haririk gabeko komunikazio sistemarako oinarri moduan, gaur egungo kable- sistemakoaren fidagarritasun maila bera bermatzeko. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Seinale Tratamendua eta Komunikazioa taldeko kideen ikerketak errendimenduko simulazioetan eta akats bitarreko tasak erabiliz baliozkotu izan dira.

ITST konferentzia 2000an sortu zuen Japoniako Informazio- Teknologietako eta Komunikazioetako Nazio Institutuak (NICT) garraio sistema adimendunei eskainitako lehendabiziko foro bihurtuz. 17 urte hauen ondoren, ITST-a erreferentziazko foro bihurtu da, garraio munduko komunikazioen arloko ikerketen ideiarik berritzaileenak eta aurrerapen berrienak erakusteko.

